




# YOGUR GURELESA

## GOGOZKOENA



# DROGAZALEAREN MUNDUA

## MUNDU EZEZAGUNA

Drogak ez du aurpegirik, ez izen propioirik. Drogazaleak bai. Hile luzea, begi-papapa, begi koloregabeak, antioju beltzak, ezpain lehorrak...; hala emanez gero, aurpegi ezaguna egiten zaigu. Apostua ere egingo genduke, drogazalearen aurpegia dela. Eta halere, ez dakigu ezer gizon eta emakume hoi buruz. Drogazalearen "portrait-robot" hau ez da aski, Baliteke egiazkoa ez izatea ere.

Drogazaleak taldeka biltzeko jorera du. Elkartasunaren beharretan dago drogazalea. Bere larrituraren elkartasuna behar du, eta atseginetan ere. Taldean bere izularria, bere bihotz-kezka, bere "bekatua" urtu, gesaldu egiten da. Horregatik hain zuzen, talde hori ez da pandilla bat, komunitate bat baino. Drogatzeak badu bere rituala ere. Talde guztiak ez dute: ez bizitasun ez elkartasun bera. Esate baterako, H (haschisch) erretzaileen artean taldea sabala da, eta Ixtia heroina-zaleen artean.

## HIZTEGI BEREZIA

Droga lortzeko legetik kanpo ibiltzera behartuak daudenez gero, drogazale ez direnak engainatzeko estrategia dela hiztegi hau pentsa lezake irakurleak. Ez dut uste hala denik. Ez ote bere esperientzia erabat apartekoa delako, eta esperientzia hori azaldu nahi luke-telarik gure hiztegiak ez dielako balio? Psikiatrek, drogazaletasunaren fenomenoaz aztertzekoan, garrantzi handia eman ohi diote hiztegiari. Zenbait hitz hauta dezagun.

- SHOOT: ziztada, injekzioa. Berdin FIX.
- ZULATU: drogatu.
- FLASH: atsegin hortitza, droga sartzerakoan.
- FLIP: droga-falta.
- ZALDIA: heroina.
- H: haschisch.
- HAD DRUGS: droga gogorrik (heroina, anfetaminak, etc.).
- CANNABIS: droga "bigunak" (haschisch, kif, marijuana, etc.) ematen duen landarea.
- BELARRA: marijuana.
- ACID: L.S.D.
- SPEED: anfetaminak.
- JOINT: haschisch-zigarroa.
- FLIPPER: egan egin, droga hartu ondoko euforia sentimentua.

## BI TESTIGUTZA

—“Emagaldtu gisa neure burua saildu beharra izan dut, egunerero

nera "paketetxoa" izan ahal nezan. Hiltzen dela? Bai, badakit. Baina drogazale askok heriotz-mota horixe bilatzen du. Bizitzari higituna, nazka, hartu diote...”

—Hogei bat urteko neska batek Frantziako telebistan (71.X.28). —“Hastapenean, arnas falta bezala senditzen da. Eta gero penak. Giltzurrunak, izterak eberezki... Hankak moztuko balizkideate bezala!... Eta gero, bular-auspoak, sudurra... ezin da arnas-hartu, ahotik izan ezik. Ikusten duzu, ahotik behar dut beti arnas-hartu... Izugarria da, ezin dut gehiago hitzegin...”

—Gizon gazte batek Frantziako telebistan (71.X.28).

## DROGA DEMOKRATIZATZEN

Droga ez da jaino berria. Indioen zibilizazioak ezagutu du, eta saguratu egin du rituetan sartuta. Argibeak eta Ameriketako beltzek gurea kentzeko erabili dute. Gura zibilizazio nonetan, zenbait idazle, komerzianteak, pintorek, "artista" izenaz ezagutzen ditugunek alegia, erabili izan dute asmatena. bitakortzeko. Deportisten artean, orain urte batzuk, drogak sortutako gogortasunak ez ditugu ahanziti.

Baina, hura: kasu guzietan, edo urrutiko fenomenoak zen, edo talde berezi eta mugatu batzuenak. Gaur, ordea, drogak mundu guzira ukitzen du, belaualdi guziaz, gizarte-malla guziaz, lanbide guziaz: zenbakiak eskutan hor azaldu zaigu telebistan estadistikagile bat.

Drogazaletasun fenomenoaren beritasun bat hauxe da hain zuzen, drogazaleak herri-malla soilen aurkitzen direla: langile-emeak, komerziante-emeak. Frantzian, estudiantek % 25 bakarrik dira. Gaitortzeko % 75 hori maila eta lanbide guzietan bilatu behar da.

## DROGAZALEAK GAZTE OTE?

Drogazaletasunaren belaualdi-borroka ikusi dutenak asko dira. Tokikomano gehienak gazte dira.

Estadu Batuetan, % 60 ek 30 urtetik behera dute. 1970 urtean, heroinaren ondorioz hildako 1.100 pertsonen artean, 224 hamalau eta hemezortzi urte tartean ziren.

Frantzian (LE MONDE-k argitaratu duenez), azken urte nonetan galdetutako toxikozaleen artean % 90 ek 25 urtetik behera dute eta % 40 ek 19 urte edo gutiago.

Joen Mari Torrealday

# JOSE ZINEBUNEGI' BEN OPTICA BEBBIA DONOSTIAN

URTIETAN LAN OIETAN OITUA


BARRUAN DANAK EUSKALBUNAK

HERNANI, 4.

DONOSTIA

## Baserriaren alde

EUSKAL ETA ERDAL



## Caja de Ahorros Municipal de San Sebastián

Banen baneko azyiak Ongarri ta abonoak Belar Zuloak

Erosi edo berritzeke diru aurreratzea

Baserri, lur-tresnak ta aber

Torelavega'ko Petri Joan etorriak